

Loiolako Iñigoren kalea, 7 · 20700 ZUMARRAGA Gipuzkoa · Telf. 943 72 15 14 · Fax 943 72 56 73
www.lasallezumarraga.eus · aldizkaria@lasallezumarraga.eus

Begira ezazu harantzago



	Editoriala Maskara kendu	2-3
	La Salle Legazpi Calendar	4-11
	Berriak	12-13
	Elkarriketa Ainhoa Elorza	14-17
	Gure txokoa Hazten ikusi zaitut	18-19
	Erreportaia Hezkuntza programak	20-27
	Irakasleen txokoa	28-31
	Ikasleen txokoa	32-41
	Ikastetxea lehen eta orain	42-43
	Zorionak	44-49
	UGLE	50-51
	Kontraazala	52

 La Salle Legazpi
 @LaSalleLegazpi
 LaSalle Legazpi Zumarraga-Urretxu

Maskara kendu

Aitor Macho

Berriki, inauteriak bukatu dira eta Garizumari hasiera eman diogu “Jainkoak agintzen duen bezala”, Hausterre Eguneko errautsaren ospakizunari bere gunea emanaz.

Garizuma, eta garai honek lotuta daraman esanahi erlijiosoa, ez dago ondo ikusita gaurko gizarte honetan. Baina horrek ez du esan nahi berarekin daramatzan balioak baliotsuak ez direnik. Egia esan, modan ez daude, baina baliotsuak dira.

Eta modan ez egotearen errua, nolabait, balio horiekin lotu diren praktikak, balio horiek lortzeko ezinbesteko ezarri diren aginduak izan daitezke: baraua, abstinentzia, penitentzia (norberak bere burua zigortu) ... Bai, horiek, bere garaian, Garizumaren helburu nagusia lortzeko egoki ikusten ziren bideak ziren. Eta helburu hori ondo gogoratzen genuen Hausterre Eguneko ospakizunean: bihotz-berritzea, hau da, hain garbi edo onak ez diren gure sentimenduak aldatzen saiatzea.

Pasa berriak diren inauterietan, mozorroak eta maskarak erabili ditugu, gure benetako presentzia, gure benetako izaera ezkutatzeko. Inauterietan, estaldura hori agerian gelditzen da, gure itxura aldatzen du. Baina ez al zaigu gertatzen gure egunerokotasunean ezkutuko maskarak erabiltzen ditugula? Ez al gara, batzuetan (edo askotan, edo jarraian), gure izaeraren alderdi batzuk ezkutatzen saiatzen, beste itxura bat ematen, benetakoa ez dena agertzen?

Gure bizitzako alderdi anitzetan, batzuetan desberdinak, beste batzuetan antzekoak, maskarak joaten gara eraikitzen, pixkanaka. Gure aurpegiaren gainean, gure izaeraren gainean, iraganean “erabili” eta emaitza onak eman zizkiguten geruzak joaten gara jartzen, bata bestearen gainean. Beraiekin, guk bezala pentsatzen ez dutenen edo gu lotsarazi nahi gaituztenen erasoak saihesten ditugu. Eta hori

kasurik onenean. Beste zenbaitetan, maskara horrek gure konplexuak, gure koldarkeria eta gure “delituak” ezkutatzen ditu.

Maskara bat onargarria izan daiteke inauterietan, edo antzezpen bat egiten ari denean, baina inoiz ez norbera bere bizitzaren “antzezpenean” protagonista denean. Izan ere, ondo lortutako bizitza urruti dago antzeztutako bizitza batetik.

“Kareta kentzea”ren adierazpena asko erabiltzen da: politikan, giza harremanetan, eguneroko borroketan. Eta esanahi zehatza du: gezurra baztertzea, faltsukeria eta benetakoa ez den aurpegiaren espresiorik gabeko keinuarekin bukatzea, gurea ez dena.

Baina erne, ez da kontua norbera izatearekin konformatzea, “norbera” hori heldutasunik gabeko pertsona denean, bizitzako helbururik gabea denean, gizartean elkarbizitzarako hornituta ez dagoena. Horrelako pertsona, heldutasun gabezi horrekin, bere buruarengan sinesten duena, bere buruaren karikatura berekoia besterik ez da izango.

Zein izan daiteke, orduan, gure gomendioa balioetan hazten lagunduko digun Garizuma honetan? Maskararik ez, egoten jakitea bai. Gezurrik ez, isiltasuna bai, egia gordinak umilazio eta gatazkak ekarri besterik egiten ez duenean. Horrela, mila geruzez egindako gure maskara, gure okerreneko aurpegiaren forma hartu duena, desagertzen joango da.

Benetakotasunak maskara kentzeko eskatzen du, gure benetako aurpegia berreskuratzeko: aske diren gizakiona. Orain dela 2000 urte baino gehiago norbaitek esan zuen bezala: “egiak aske egingo zaituzte”.





3 Urtero bezala Udal Euskaltegiak eta Urretxu eta Zumarragako Udalek Mintzodromoa antolatu zuten.

Helburua euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak biltzea da, kafetxo bat hartzen duten bitartean euskaraz aritu daitezen asmoarekin. Aurten ekimena Antioko atarian ospatu zen eta La Salle Legazpiko hainbat familiek parte hartu zuten.



15 HH 0-2 urteko gelak berriro esperimentazio gune bilakatu ziren. Oraingo honetan, haurrak kotoiarekin esperimentatzen, kaxekin jolasten eta kortxoa eta kolore ezberdinetako fitxekin forma berriak sortzen aritu ziren.



15 Salletarrak futboleantzen izenburupean, La Salle Legazpik mahaingurua antolatu zuen La Salle sareko eskola ezberdinetatik atera diren futbolari ezagunak parte hartzerako gonbidatuz.

Onda Vascako Kiroletako buru eta Irungo La Salleko ikasle ohia den Iñaki de Mujikak egin zituen moderatzaile lanak eta futbol zelaian edo telebistan elastikoa izerditzen ikusten ditugun baina hurbiletik ezagutzea zailagoa den fitxaketekin aritu zen solasean. Parte hartu zutenen artean Eibar KEko kapitaina den Dani García, Realeko Mikel Oyarzabal eta Aritz Elustondo jokalaria, Realeko harrobiko goleatzailea eta Athletic-eko jokalaria izandako Iñigo Díaz de Cerio eta Realeko formazio taldeen arduraduna eta La Salle Legazpiko irakaslea den Mitxel Badiola izan ziren.



19 Ohiturari jarraiki, ikastetxeak urteroko Gabonetako jaiotza eta krismen lehiaketa antolatu zuen. Batetik, 549 ikaslek hartu zuten parte Gabonetako zorion-postalak egiten. Bestetik, LH 5. eta DBH 2. maila bitarteko 70 ikaslek jaiotzak sortu zituzten. Jaiotzek sormen eta denbora gehiago eskatzen dutenez, ikasleek normalean gurasoen laguntza izaten dute. Ekimenaren helburua etxekoak inplikatzeko da materialak aukeratzeko, eskulana egiterako, etab. Izan ere, denetarik materialak erabili zituzten: goma, kartoia, poliespana, beira, 3D inprimagailuetan eginiko irudiak eta formak, baita birziklatutako objektuak eta sormena ere.

Ondoren, ikastetxeko ikasleek egindako zorion-postalen eta jaiotzen erakusketa Zelai Arizti Kultur Etxean ikusgai egon zen abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra bitartean.



20 HH 0-2 urteko gelako haurrak ez dira esperimentatzeaz eta ikasteaz nekatzen; horren adibidea burbuilazko paperarekin egindako masaje saioa izan zen.



21 HH 2 urteko gelako haurrak zuhaitzak apaintzen aritu ziren.



21 Gabonetako giroa eta garai honek dakarren zoriontasuna aitzaki, LH5 eta 6. mailako ikasleak Zaharren Egoitzan izan ziren bisitan bertakoei musika eta abesti emanaldi bat eskeintzeko asmoz.



22 HH 0-2 urteko gelako haurrek fruta dastaketa goxoa egin zuten fruta jateak daukan onuraz jabetzeko helburuarekin.



23 Aurten ere gure ikasleek ilusio osoz jaiotza antzeztu eta Gabonetako jaialdia ospatu zuten.



23 Jaionek eta Ikerrek, DBH4B gelako ordezkariak, gelakideei Gabon zoriontsuak opa zizkieten postal honekin. Polita, ezta?



24 Aurten, Ginzuri, Ikastola eta La Salle-Legazpi ikastetxea elkarrekin atera ziren gabon egunean kaleetan abestera. Gure ikasle, irakasle eta familiak 11:00etan ikastetxetik atera ziren, 12:00tan Zelai Arizti plazan elkartzeko beste eskoletako partaideekin eta bertan 4 abesti abestu zituzten elkarrekin. Bukatzeko, hamaitakoa jan zuten ikastetxean.



16 DBH 3 eta 4. mailako ikasleek hezkuntza afektibo-sexualari buruzko ikastaro batean parte hartu zuten. Saio hauen helburua afektibitatea eta harremanak lantzea izan zen: ni, zu, gu, emakumeak, gizonezkoak, izaerak, gorputza, lotsak, beldurrak, pozak, sexuen arteko berdintasuna, pertsonarteko leialtasuna, ezberdintasunak, autonomia emozionala, joera sexualen arteko berdintasuna... Saio hauek udaletxeko Drogomenpekotasun Prebentzio Sailaren laguntzarekin egin ziren.



20 HH2 urteko haurrek primeran pasatu zuten San Sebastian ospatzen.

*Sebastian bat bada zeruan
Donosti(a) bat bakarra munduan
(h)ura da santua
(e)ta (h)au da (h)erria
(h)orra zer den gure Donostia*



21 Urtarrilaren 21ean La Salle Legazpik Izartxo aisialdi taldea martxan jarri zuen. Nahiz eta helburu nagusia gure ikasle gazteenei aisialdi aukera ezberdinak eskeintzea izan, Izartxo ez da aisialdi talde bat soilik: gure komunitatea osatzen duten pertsonak biltzeko aukera bat da. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu proiektu hau posible egiten duten guztiei: disfrutatzen aritzen diren ikasleei eta gidari lanetan jarduten duten ikasleei, ikasle ohiei, gurasoei, irakasleei eta Izartxoren arduradunei.



21 La Salle Legazpi ikastetxeak Ate Irekiak antolatu zituen bertako Hezkuntza Proiektua eta instalazioak ezagutzera emateko. Ate Irekien jardunaldiez gain, bi bisita gidatu egin ziren urtarrilaren 24an.



23 DBH2. mailako ikasleak Zestoako Sastarrain Baserri Eskolan izan ziren. Astelehenetik ostegunera egindako egonaldia ingurumenarekin eta gainerako ikaskideekin loturak sendotzeko gonbitea izan zen, gela barruko betebeharretatik urruntzen diren jarduerak eta esperientziak partekatuz. Ekimenaren helburuak gure gazteen artean euskararen erabilera sustatzea, beraien arteko harremanak indartzea eta talde lanerako giroa hobetzea dira.



26 LH 1.zikloko ikasleek omenaldi xume bat egin zioten Pili andereñoari bere azkenengo eskola egunean. 1.mailakoek gutun baten bidez beraien sentipenak adierazi zizkieten eta 2.mailakoak, aitzaki hau hartuta, bertsoan aritu ziren. Saio batzuk egin ziren errima eta doinu desberdinak erabiliz. Txapelketa ere antolatu zuten eta hain maila ona lortu zen non guztiak irabazle suertatu ziren. Txapelketa Pili andereñoaren omenezko bertsoekin amaitu zen. Milesker bihotz-bihotzez, Pili andereñoa!



30 Aurreko urteetan bezala, erresistentzia baketsuaren eta biolentzia ezaren irudi den Mahatma Gandhiren heriotzaren urteurrena gogoratuz, La Salle Legazpik Bakearen Eguna ospatu zuen.

Edizio honetako gai nagusia emakumeen aurkako indarkeriaren desagerpenaren aldarrikapena izan zen. Ikasleek hainbat ekintza egin zituzten eskolan eta goizerdian, 11:30ean, Zelai Arizti Parkera hurbildu ziren. Gazteek parkeko zuhaitzetatik genero indarkeriaren aurkako leloak eta horma-irudiak zintzilikatu zituzten. Txikienek lorategia apaindu zuten landare eta marrazkiekin, tratu txarren gaitzespen keinu gisa. Ekintzari amaiera eman zitzaion manifestu bat irakurri eta Mikel Markez eta Aire ahizpen "Konplize ditut eta" abestia kantatuz. Modu honetara, La Salle Legazpik bat egin zuen Unescoren aitortza duen eta 1964tik ospatzen den Bakearen eta Biolentzia ezaren Eskola Egunarekin.



1 Osasuna eta dieta mediterranea gaiarekin lotuta, txokolatearekin esperimentazioa egin zuten HH 3 urteko hurrek. Txokolatea dastatu, usaindu eta ukitu zuten. Jarraian, esnearekin gauza bera egin ondoren nahasketa egin zuten eskuekin. Azkenik, eskuak zikin-zikinak zituztenean txokolatearekin hormairudi handi bat sortu zuten. Umeek ikaragarri gozatu zuten esperimentazio honekin.



3 Ohitura denez, San Blas egunean HHko hurrek opilak ekarri zituzten eskolara kaperan bedeinkatzeko.



29 Gure DBH 4. mailako ikasleek eskolaz kanpo ere disfrutatzen dute. Kasu honetan, Tolosako bi museo ezagutzeko aukera izan zuten: Gipuzkoako Artxibo Orokorra (historikoa) eta TOPIC museoa (txontxongiloena). Nahiz eta bi museo guztiz ezberdinak izan, ikasteko aukera egokiak eskaintzen dituzte.



8 Antzerkia hautazko ikasgai bezala lantzen duten DBH 4. mailako ikasleak Donostian izan ziren *Jainko Basatia* antzezlanak ikusten.



18 Inauteriak zetoze la aprobetxatuz, Izartxo aisialdi taldea altxorraren bila aritu zen gure ikasleak pirata ausartak balira bezala. Mozorrotu ondoren, ikasleek taldetan hainbat proba gainditu zituzten eta ausartenean altxorra bereganatzea lortu zuten.



24 Ikasleek ilusioz beteta ematen diete ongi etorria inauteriei, gogotsu bizi ohi dute festa eta behin mozorro egunak agurtuta, argazkiak ikusi eta igarotako momenturik onenak gogora ekartzeko ordua iristen da, datorren urtekoak gero eta gertuago daudela pentsatuta. Aurtengo inauteriek irudi asko utzi zituzten, hala nola eskolak ospaturiko jaialdiarenak.



8 Martxoak 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, La Salle Legazpi osoa ikasgeletatik atera zen more koloreko globo jaurtiketaren bidez berdintasuna, gizarte justuago bat eraiki beharra eta hau lortzeko eman behar diren urratsak aldarrikatzeko.

1 Behin Ihauteriak pasata eta Garizuma aldian sartuta, DBH eta LHko ikasleek Hausterre Egunean kaperan egindako ospakizunean parte hartu zuten.



6 Martxoak 6 eta 8an Ordiziako Rugby Elkarteko bi jokalarik eta **8** entrenatzaile bat egon ziren DBHko ikasleekin Hezkuntza Fisikoko klaseetan. Entrenamendu honen bitartez ikasleen artean rugby-ra jolasteko zaletasuna sustatu nahi izan zuten. Ea norbait animatzen den rugby taldean izena ematen!



8 La Salle Legazpik "Do Re Ni" proiektua jarri du martxan, euskara, dantza, antzerkia, kirola eta musika uztartuz umeen burmuina estimulatzeraz bideratuta dagoen ekimen berritzailea. Proiektuaren sortzailea Xabier Lizaso musikari eta ikertzailea da eta proiektu hau hezkuntza alorrean duen 25 urteko esperientziaren eta azken ikerketa neurologikoen emaitza da. Izan ere, ikerketek erakutsi dute musikaren lanketak burmuineko hainbat partetan eragiten duela. Horregatik, musika haurren nortasuna lantzeko, hizkuntzak ikasteko, ikasgaiak lantzeko edota



eguneroko bizitzako beste hainbat alderditarako lagungarri izan daitekeela uste du Lizasok. Eta hori guztia metodologia gisa jolasa erabiliz. Gipuzkoan 15 ikastetxetan ezarri dute hezkuntza proiektu hau. La Salle Legazpin lau talde osatu dira eta 47 neska-mutilek hartzen dute parte, Josune Amenabar eta Naroa Peñagarikanok zuzendutako saioetan. Egitasmoan parte hartzen duten umeek ekainaren 10ean jaialdia izango dute Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Gipuzkoako beste zentroetako haurrekin batera.



Pastoral Kongresua: "Bokazio Kultura"

Otsailaren 9tik 11ra, El Escorialen (Madrilen), Pastoral Kongresu bat ospatu zen. Bertan, Espainia eta Portugaleko La Salle eskola guztiek parte hartu zuten "Bokazio Kultura" gaia eztabaidatzeko asmoz. La Salle mailan izaten diren bilera guztiak elkarbizitza aberats baterako aukera izaten dira eta halakoa izan zen kongresu hau. Guztira 228 Pastoral arduradun bildu ziren eta La Salle sareko eskoletan gure ikasleengandik gertu egoteak, beraiei entzuten jakiteak eta haien bizi proiektua deskubritzen laguntzeak daukan garrantzia eztabaidatu eta baloratu zuten. Horretarako, arlo horretan aditua den Amedeo Cenciniren jakinduriak gozatzeko eta La Salle zenbait

JEUVES 09	VIERNES 10	SABADO 11
13:00 – Acogida 14:00 – Comida 16:00 – <i>Chito – Brotes de Olivo</i> 16:30 – Inauguración Hnos. Jesús Miguel Zamora 17:00 – 1ª <i>Mirada</i> ¿Pescasillo? De qué hablamos cuando decimos "cultura vocacional"? Hno. Jorge Sierra Canduela 17:45 – Descanso 18:30 – 3ª <i>Mirada</i> La pastoral vocacional en el mundo Lasaliano Hno. Rafael Matas Roselló 19:30 – Dinámica Hara por grupos 20:30 – Descanso 21:00 – Cena 22:00 – Optativo: "Si Dios quiere"	08:30 – Desayuno 09:15 – Oración de la mañana 10:00 – 3ª <i>Mirada</i> ¿Qué entendemos por cultura vocacional? P. Amadeo Cencini 10:45 – Descanso 11:00 – 4ª <i>Mirada</i> ¿Cómo crear cultura vocacional? P. Amadeo Cencini 12:00 – Trabajo por grupos pequeños 12:45 – Diálogo con... P. Amadeo Cencini 13:45 – Presentación de la dinámica de la tarde 14:00 – Comida 15:45 – <i>Sube tu mirada</i> 16:30 – <i>Concierto</i> Álvaro Fraile 17:30 – 5ª <i>Mirada</i> "Hacia una cultura vocacional Lasaliana" Lidia Rey Pili Castro María José Sánchez 18:30 – Descanso 19:00 – Panel de experiencias y testimonios 20:30 – Descanso 21:00 – Cena 22:00 – Convivencia	08:30 – Desayuno 09:15 – Oración 09:45 – Dinámica cooperativa 11:00 – Descanso 11:30 – 6ª <i>Mirada</i> "La cultura vocacional en nuestro Distrito" Reunión por Sectores 12:30 – Descanso 13:00 – Eucaristía 13:45 – <i>Claudio y Fede de grupos</i> Hno. Robert Schieler 14:00 – Comida 15:00 – Despedida

eskoletan egiten diren ekintzak ezagutzeko aukera izan zuten bertaratuek. Hemendik aurrera gure txanda da, jasotakoa hausnartu eta gure errealitate hurbilera egokitzeko.



ANAI JOSE ROMAN PEREZ CONDE
ARLEP Barrutiko Anai Ikuslari berria

Beasainen jaioa, bere ibilbidea betidanik La Salleko ikastetxeetara eta obrara lotuta egon da. Irakaskuntza eta zuzendaritzan hainbat urtez aritu ondoren Zumarragako La Salle Legazpin, Beasaingo La Salle San Josen eta Andoaingo La Salle Berrozpen, 2003an Bilbo Sektoreko Ikuslari Laguntzaile izendatu zuten eta Hezkuntza saileko ardura jaso zuen 2008rarte. Sektorea Euskadi, Nafarroa, Zaragoza, Huesca eta Errioxako Erkidego eta saletar obrek osatzen zuten. Urte horietan Kristau Eskola abiarazten ere lagundu zuen, Kristau Eskolako zuzendaria ere izanik. 2008ko irailean Bilbo Sektoreko Ikuslari Titularra izendatu zuten 2010 arte, sektore guztiak ARLEP Barruti bakarrean bildu ziren arte. Momentu horretan Bilbo Sektoreko Ikuslari Laguntzaile bilakatu zen zazpi urtez. CONFER Euskadiko presidentea da eta Kapitularra izan zen 45. Kapitu Orokorrean (Erroma, 2014). 2017ko otsailaren 10ean ARLEP Barrutiko Ikuslari Titular izandatu zuten, 2017ko irailaren 2an hasita lau urtez izango duen ardura.



GURASOEN TXOKOA

La Salle Legazpiko ikasleek eta irakasleek aldizkariaren ale bakoitza sortzeko aktiboki parte hartzen dute eskolan egindako lanaren emaitzak erakutsiz eta ikaskuntza sustatzen duten bestelako tresnak emanez. Hala ere, gure komunitateko euskarri nagusietako bat falta da: familia. Guraso bezala, anima zaitezte gure aldizkarian parte hartzera, bai erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak proposatuz, bai zuen hausnarketak, inpresioak idatziz. Gurekin harremanetan jarri zaitezke aldizkaria@lasallezumarraga.eus. helbidean. Pena merezi du.

Ainhoa Elorza

“Urtarrilean makro festa batekin ekin genion Izartxo aisialdi proiektuari”

La Salle Legazpik urtarrilak 21ean jarri zuen martxan Izartxo proiektua eskolako patioan egin zen makro festarekin. Ainhoa Elorza irakaslea da egitasmoaren koordinatzailea eta berari galdetu diogu zertan datzan Izartxo aisialde proiektua.



Zer da zehazki Izartxo proiektua?
La Salle sarera atxikituta gauden ikastetxeotan garatzen dugun aisialdi proiektua da. Beste hainbat eskolatan urteak daramatzate egitasmoarekin eta guk ikasturte honetan jarri dugu martxan uste dugulako heziketa proiektuaren osagarri dela.

Ekintza ezberdinak antolatu ditugu urtariletik ekainera bitartean.

Egitarau bat landu duzue beraz.

Bai, hilean behin bilduko gara.

Urtarrilerako makro festa antolatu genuen, otsailean inauteri festa egin genuen eta hurrengo hilabeteetan eskulan tailerrak eta jolasak egingo ditugu. Maiatzean egun osoko irteera egitea pentsatu dugu eta ekainean, egitarauari amaiera jartzeko, jaialdia egingo dugu gurasoen parte hartzearekin.

Ekintzak 16:00etatik 18:00etara izango dira egun osoko irteera izan ezik.



Zer adinetako ikasleek har dezakete parte?

LH3 eta LH6 arteko ikasleei zuzenduta dago programa. 115 neska-mutilek eman dute izena dagoeneko. Hala ere, parte hartu nahi duenak badu aukera nahi duenean izena emateko. Nirekin harremanetan jarri besterik ez du egin behar, ikasleek badakite non aurkitu nazaketen.

Aurtengo helburua talde egonkor eta sendoa sortzea da, giza trebetasunak eta baloreak garatuz.

Baloreak aipatu dituzu. Izartxo giza baloreetan oinarritutako proiektua da, ezta?
Hala da. Elkarbizitzaren bitartez, talde nortasuna eta giza baloreak lantzea dugu helburu, familiekin kontatuz. Batetik, La Sallek beti sustatzen dituen baloreak, hala nola, sormena, ardura, bizikidetza edota senidetasuna. Eta bestetik, ikasleen auto-estimua indartuko duten baloreak: enpatia, miresmena, esker-ona, zintzotasuna...

Ikasgeletatik ateratzeak eta beste testuinguru bat eratzeak harremanetarako aukera berriak ekartzen ditu, baita adin horretan dituzten galderak eta kezak bideratzeko ere.

Proiektuari lotuta, gure beste erronketako bat da gaztetxoak euskarara eta euskal kulturara erakartzea; aisialdia eta hezkuntza uztartzen ditu Izartxok.

Nortzuk aritzen dira ikasleekin saioak gidatzen?

Irakasle bolondresak eta baita DBH4ko ikasle eta ikastetxeko ikasle ohiak ere. Denei eskerrak eman nahi dizkiet, haien laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen Izartxo aurrera eramatea. Eta oraindik parte hartzera animatu ez diren ikasle eta irakasleak pausoa ematera gonbidatzen ditut.

Hazten ikusi zaitut

Anai Mikel Arbizu

Lainoak zure ondoan jolasean dabilta, aireak laztantzen zaitu, euriak zure aurpegia garbitzen du, haizea zu mugitzen saiatzen da baina zeruan geldirik jarraitzen duzu. Entsalada-ontzi batean puxtarri bazina bezala mugitzen zara. Hotza eta lehorra zara, baina itsasoko urak aztoratzen dituzu.

Batzuetan meloi xerra dirudizu; bestetan, Idiazabal gazta erdia; eta hilean behin, alai eta galant, esnegain tarta ederra. Zure formekin hainbestetan iruzur egiten diguzu non "gezurti" deitzen zaituzten ...

Kotoi artean hegan egiten duzu. Lagunik, laguntzailerik eta pertsonaia xelebrerik ez zaizu falta: ezkerrean errinozeronte adeitsu eta lagunkoi bat ageri da; eskuinean, Filina xagu saltaria; erdian, Davorin kapitain ausart eta biboteduna, ezpata soinean duela. Ziur J. Krüs, "Irla zoriontsuak" obraren idazlea, ezkutatuta zegoela txotxongiloak mugitzen.

Kezko hesiak zu estaltzen saiatzen dira baina hor egoten jarraitzen duzu. Itxaron, hori ere ezagutzen dut. Frodo da, "Erastunen Jauna"-ren hobbita: garaia, dotorea, begiak nekatuta dauzka hainbeste abentura bizi izanaren ondorioz; irla bakartirantz doa lanbrotan barrena. Tolkien-en iratxo batzuk atzetik jarraiki daramatza.

Ezkutatzen zara eta berriro agertzen. Oharkabetzen gaituzu. Gurekin dibertitzen zara. Tamainaz aldatzen zara nahi duzun bezala. Hauts fitsek aurpegia zikintzen dizute tarteka. Hala ere, gauero zatoz: poliki, zaratarik atera gabe, garaiz hitzordura.

Orain dela hilabete batzuk zugandik gertu Aslam ikustatu nuen, Lehoi Handia, erraldoia baina otzana; bere ondoan kastor berriak korrika zebiltzan (ziur "Narnia"-tik ihes egin zutela); Lewis bera han zegoen, armairu famatuko atea zabaltzen.

Begira nor datorren orain. Dorothy da, bere zilarrezko zapatekin; atzetik Toto dator, bere txakurra, eta hegan Glinda, sorgin ona. Urrutian, Latorrizko Gizona, motel eta baldar aurrera doala. "Ozeko aztia" k gauza liluragarriak sortzen ditu zure eszenatokirako; hori oso ondo zekien F. Baum-ek.

Guztiak zure inguruan daude; txandaka zure adarretatik zintzilikatzen dira, pasieran zabiltzala olan zuriaren gainean salto egiten dute, zure biribilguneetatik behera irristatzen dira; liluratuta begiratzen eta oihukatzen dute.

Ilargia, harro izarren artean. Pergaminozko pandereta bezain borobila. Zu, gaueko begiralea, eszenatoki ilunaren erregina, unibertsoko faroltxo txikia, gure planetaren lagun leiala, gaueko eguzkia...

Gu biok amaigabeko kosmoseko "basamortuan" hondar ale bat baino ez garela pentsatzea... Esadazu, ez bazintugu ikusiko, existituko zinateke? Noiz arte jarraituko zenuke guri argia ematen? Bihar etorriko al zara?

Hezkuntza programak

Garai berriak bizi ditugu eta ikaskuntza garai berri hauetara moldatu behar da. La Salle Legazpik etengabeko berrikuntzarekiko duen konpromisoa betetzen jarraitzen du eta marko metodologiko berria lantzen eta sustatzen duten erramintak aplikatzen dihardu.

Elkarlaneko Ikaskuntza



Eskola gisa sinetsi egiten dugu heziketa aldatzen ari denaren ziurtasun handi horietako batetan: garenarekin ikasi eta irakasten dugu. Horregatik gure ikastetxean ikasle konprometituak nahi ditugu, non bakoitzak daukan onena ematen duen ikasteko eta besteei irakasteko. Horretarako Elkarlaneko Ikaskuntzarekin gure ikasleek adostasuna, errespetua, konfiantza eta elkarbizitza praktikan jartzen dituzte. Hauek guztiak, gizartean bizitzeko ezinbestekoak diren baloreak.



Barnetasunean oinarritutako hezkuntza: "HARA" Proiektua



HARA 'izaten' ikasteko gaitasunean heztera zuzendua dagoen programa da, Haur Hezkuntzako 3. mailatik Batxilergora arte aplikatzen dena. Programa honen bitartez gure ikastetxeko pertsonak konpromisora eramango dituen barnetasuna landu dezaten lortzen dugu, gizartearekin eta bere inguruarekin eduki behar duten konpromisoa. Ondorengo argazkian HH3 urteko umeak dira protagonistak. Hara saio honetan begiak estalirik eta musika entzuten ari zirela bi eskuak erabilia lurrean hormirudi bat margotu zuten beraien emozioak artistikoki espresatzen zituztelarik.



La Salle Legazpi ikastetxean HARA proiektua ez dute ikasleek bakarrik garatzen; irakasleak ere proiektu honekin konprometitu daude eta ikastetxeak saioak antolatzen ditu irakasleek ere barnetasuna landu dezaten.



Ulibarri HIZKUNTZA, KULTURA, MUNDU BAT



Euskara hizkuntza, kultura eta mundu bat da: bertoko hizkuntza, gure kultur izaera eta munduan nor izateko modua. Euskal Herria euskaraz ulertzen dugun euskaldun eta euskaltzaleok aspaldi ekin genion geure hizkuntza sendotzeari, etorkizun hobea nahi dugulako.

Honela, AEK-k antolatuta, 2017ko martxoaren 30ean hasi eta apirilaren 9an amaituko da Korrika, BATZUK lelopean: hizkuntza, kultura eta mundu BATZUK irudikatu nahi dituen ekitaldia. 20. edizio honek, 1980. urtean Korrika sortu zutenei omenaldia egin nahi die. Eta guzti honetan, Zumarragako La Salle Legazpi ere parte hartuko du.

Gure eskola honen bisioa den ikasle eta herritarren euskal ohitura, hizkuntza, kultura eta izaera bultzatu nahian, denok parte hartuko dugu aurtengo korrika ekitaldian.



Honela, eskolak milaka kilometro horietatik zatitxo txiki bat erosi zuen bizipen honetaz gozatzeko. Kilometro zatitxo hori eros ahal izateko, Ulibarri taldeak eskola komunitate guztiari bere aportazioa eskatu zion ikastetxeko atarian denon laguntzak jasotzeko kutxatxo baten bitartez.

Apirilaren 7an La Salle Legazpi Korrika Txikia ospatuko du eta 8an Zumarragatik pasako da aurtengo Korrika. Beraz, animatu parte hartzera; "nik, hik, hark, Guk, zuk, zuek, haiek. Bat eta batzuk: nire hizkuntza, zure hizkuntza; gure kultura gure kulturak... Hizkuntza baten alde egiteko, guztien alde egiteko. Baten eta batzuen alde. Kultura unibertsalaren alde".

Hona hemen hizkuntza-berdintasunaren aldeko jairado gonbidapena. Mundu unibertsalagoa sortzera. Bat egitera. Zuk egitera. Bat egitera. Zuk egitera.

Euskaraz

Klikatu 20. **KORRIKAREN SPOTA** ikusteko

Erreportaia



SIEP-FEAC

SIEP-FEAC hitzak "Sendi-irakaslegoa: Elkar partekatuz" / Familia-Escuela: Acción compartida" egitasmoaren inzialak hartzen ditu. Familien eta ikastetxeen artean lankidetzat sustatzeko Hezkuntza programa bat da.

Gurasoen Eskola bat baino gehiago da: HEZITZAILEEK (gurasoek, irakasleek, entrenatzaileak, orientatzaileak...) hezkuntzari buruz elkarriketan aritzeko, informazioa eskuratzeko, ikasteko, beren ikuspuntuak eta esperientziak elkarri ezagutarazteko gunea da. Bertan, (taldeak etapan arabera -Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH- antolatzen dira, talde txikietan) irakasleek eta sendiek beren iritziak eman, elkarri entzun eta guztiek elkarrengandik ikasten dute.



Sein

La Salle Legazpiko ikasleek ikasturte honetako beraien lehenengo SEIN proiektuak aurkeztu zituzten ebaluaketa honetan. Honen adibide DBH 1. mailakoek Antzinako Greziari buruz eginiko proiektuak izan ziren. Proiektuak egin ondoren ikasleek beraien ikaskideei aurkeztu zizkieten. Hala ere, aurkezpena ez zen gelakideetara mugatu; izan ere, ikasleek beraien familiak gonbidatu zituzten proiektuen aurkezpenak entzutera eta etorri ere, etorri ziren gogotsu lan hauen berri jakitera.



SEIN programaren barnean DBH 2. mailako hainbat ikasle Erdi Aroa lantzen aritu ziren. Hona hemen beraien egindako aurkezpenak.



Erreportaia

Agenda 21

Lurraren sukarra (KLIMA ALDAKETA)



Aurtengo ikasturtean gizakiaren egunerokotasunak klima aldaketan duen eragina aztertzen saiatzen ari gara Eskolako Agenda 21 proiektuari esker. Lurraren klimaren aldaketa hainbat esparrutan ematen da, hala nola tenperaturan, prezipitazioetan, hodeietan eta abarretan. Honez gain, atmosferako negutegi gasen kontzentrazio aldaketen aurrean, zientzialari batzuek baieztatzen dute oraindik agerikoak ez diren ondorioak sortuko dituztela etorkizunean: ekosistemetan aldaketak, kostaldeak urpean gelditu daitezke, prezipitazioen egituretan aldaketak, etab.


Argi dago, gaur egungo politikariek ez dituztela gure beharrak asetzen, baina zer egin dezakegu guk klima aldaketari aurre egiteko? Erantzuna ez da erraza, baina gure eguneroko bizimoduan aldaketa xumeak egiten saiatzea besterik ez dugu. Hori da gure ikasleak lantzen ari direna: beraien herriaren diagnostikoa eta dauden ingurugiro arazoak aztertu ondoren, beraien eguneroko bizitzan interbide errealak aplikatzeko konpromezua hartuko dute.

Guk ere ingurugiroaren alde lan egin dezakegu CO2 isurpenak murriztuz. **HEMEN**, klikatu ezazu, kalkula ezazu zure etxeko CO2 isurpen-maila eta ingurugiroan duen eragina ezagutuko duzu. Neurriak hartzea gure eskuetan dago!



Sormen

Bertikala den inteligentziak arazoei aurre egiteko irtenbide errezena bilatzen du beti. Aitzitik, Alboko Pentsamenduaren helburua ez da irtenbideak aurkitzea bakarrik, ahalik eta aukera gehienak lortzea baizik. LHko gure ikasleek emozio jarrera hau garatzen dute planteatzen zaizkien egoerei aurre egiten dieten bitartean. Oraingo honetan ikasleek irudi geometriko ezberdinak zeuzkan fitxa bat jaso zuten eta konposizio bat egin behar izan zuten ondoren ikaskideen aurrean azaltzeko.



Erreportaia



Proyde-Proega

Aurtengo PROYDE-PROEGA proiektuaz aparte, gure ikasleek gehiegizko kontsumoari buruzko sentiberatasun kanpaina bat landu dute hainbat astetan.

Para millones de personas en el mundo TODOS LOS DÍAS SON NEGROS

Black Friday, Cyber Monday, descuentos especiales, rebajas 2x1, ventas outlet, tarifas low cost... Cada vez compramos más y a un precio más bajo, pero no nos paramos a preguntar cuáles son las consecuencias de este consumo desahogado sobre las demás personas. Con esta campaña queremos profundizar en cómo nuestros hábitos de consumo cotidianos tienen un impacto mucho mayor del que nos imaginamos sobre las condiciones de vida de millones de personas. Porque todo lo que hacemos está interconectado y tiene unas consecuencias tan devastadoras para algunas personas y sus ecosistemas, que no podemos, ni ética ni moralmente, mirar hacia otro lado.

MIRA MÁS ALLÁ. Consumir lo justo depende de ti.

Nuestra forma de consumir afecta a las personas en situación de vulnerabilidad

CONSUMIR LO JUSTO DEPENDE DE TI

MIRA MÁS ALLÁ

BLACK FRIDAY, BLACK SATURDAY, BLACK SUNDAY...

MIRA MÁS ALLÁ

¿Tres camisetas por el precio de una?

Las grandes marcas de ropa han conseguido imponer un modelo de negocio basado en la deslocalización continua, buscando países que tengan el menor coste de fabricación y los menores controles medioambientales y laborales. Además, los artículos son cada vez de peor calidad para que cuesten menos y renovemos constantemente nuestro armario.

Si no es el último, no lo quiero.

Millones de personas disfrutan de las ventajas de las nuevas tecnologías, pero pocas veces se preguntan cómo se fabrican. Por ejemplo, niños y niñas que trabajan hasta 12 horas al día para extraer el coltán necesario para fabricar la batería de tu smartphone por 1 o 2 dólares, en condiciones inhumanas y arriesgando sus vidas.

NUESTRA FORMA DE CONSUMIR

Cada gota cuesta, cada gota cuenta.

En España consumimos al día, un promedio de 170 litros de agua. Este gasto supera con creces la cantidad mínima necesaria estimada por la OMS. Pero esto es solo una pequeña parte de lo que consumimos: una camiseta de algodón necesita en su fabricación unos 4.000 litros de agua. ¿Y comeremos una hamburguesa? otros 2.500 litros de agua.

Super Size, Big Extreme, Extra Long, Doble Triple...

Se calcula que en 2014 había más de 40 millones de niños con sobrepeso en el mundo, el 90% en países desarrollados. Pero mientras en una parte del mundo hay una epidemia de obesidad, en otra hay una epidemia de hambre.

En la industria textil se dan casos de explotación laboral: salarios de miseria, jornadas interminables, precariedad laboral, enfermedades. Además es la segunda que más contamina después de la petrolífera.

Más de 218 millones de la población infantil se ve obligada a trabajar en el mundo. El 65% no recibe un salario.

¿Sabes dónde van a parar los más de 50 millones de toneladas de desechos electrónicos que se generan en el mundo cada año? Una pista: 500.000 niños y niñas trabajan en los basureros de América Latina.

Más del 50% de la tecnología que se quiere reciclar en EEUU acaba en vertederos de países del Sur.

El 80% de la mortalidad infantil tiene su origen en enfermedades relacionadas con el agua en mal estado, debido a las malas prácticas industriales. Además 2.600 millones de personas carecen de acceso a saneamiento básico.

La transformación de los países empobrecidos en economías al servicio de nuestras necesidades de consumo, es una de las causas principales de que 800 millones de personas padezcan escasez de alimentos.

8.500 niños y niñas mueren en el mundo cada día a causa de malnutrición.

Consumo con responsabilidad:

Por Consumo Responsable entendemos la elección de los productos y servicios que compramos y consumimos, no solo por su calidad y su precio, sino también por su impacto medioambiental y social y por la conducta de las empresas que los elaboran.


Tendremos que tomar conciencia de las repercusiones de nuestros hábitos de consumo para mejorarlos. También tener capacidad crítica y selectiva cuando consumimos.

Tendremos que priorizar la compra de productos que tengan menores impactos ambientales, reducir el consumo de los recursos naturales de los que disponemos, así como garantizar los mismos derechos para todos las personas.

Y a la hora de comprar:

- Prepárate si lo que vas a comprar va a satisfacer una necesidad o si lo compras por impulso.
- Infórmate sobre el lugar de procedencia y los modos de elaboración de los productos que consumes.
- Piensa a qué tipo de comercio quieres favorecer. Los productos locales, ecológicos, de comercio justo, son sin duda las mejores opciones medioambientales y sociales.
- Atendiendo de la calidad de lo que compras, elige los productos que sean más saludables y duraderos.
- Busca alternativas que minimicen la explotación de recursos naturales: productos de segunda mano, reciclados o reutilizados...

MIRA MÁS ALLÁ



Irakasleen txokoa

Hona hemen gure irakasleek gure ikasle eta gurasoei ikasgaiz ikasgai gomendatzen dieten materiala.

Haur Hezkuntza

Montessoriren taula:

ezagutu zein eginkizun bete ditzakeen zure semeak/alabak bere adinaren arabera

Puzzleak

Puzzle joko honekin koloreak lantzen ditugu

Haurrentzat erlaxazio teknikak

EUSKARAREN TXANTXANGORRIA (Abestia)

Lehen Hezkuntza

GIZARTE

Mapas Flash interactivos



EUSKARA

Bertsoak egiteko errima bilatzailea

TUTORETZA

Mugikorraren erabilerari buruzko arauen eta betebeharren kontratua




Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko

LOTARATU, LOTARAKO KANTA (Abestia)

ARTIKULUA

Maria Montessoriren lasaitasunaren potoa guraso eta seme-alabentzat. Emozio bizienak baretzen lagundu dezake.



IPUINA

Mireille d'Allancé-ren

"Vaya Rabieta"

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko


GAZTELANIA

Juego: Repaso de las normas ortográficas



Importancia de la lectura en el desarrollo de los niños (Editorial Rubio)

¿Por qué es importante la lectura?



Carta a mis alumnos suspensos (Pablo Poó Gallardo)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko

BIO-GEO

Plaken Tektonikaren Teoria



GIZARTE

Erdi Aroari buruzko filmak:

Zaldunen Patua

Braveheart

Zeruetako Erreinua

Arturo Erregea

MATEMÁTICA

'Tu maestro en casa' kanala: experimentu zientifikoak eta matematikoak



INGELESA

Check how accurate your pronunciation is!

EUSKARA

Online zuzentzaile ortografikoa

Irakasleen txokoa


GAZTELANIA

BLOG Lengua y literatura 2.0:

Aprovecha las nuevas tecnologías y diviértete aprendiendo lengua.

HEZKUNTZA FISIKOA

Elikadura eta kirola



TEKNOLOGIA

Scratch



FISIKA

Fisikako azalpenak



Ikasleen txokoa

Gure ikasleen lana ez da azterketetara eta etxeko lanetara mugatzen. Ekintza pila bat burutzen dituzte eta oso interesgarriak diren banakako zein taldeko lan nahiz proiektuak egiten dituzte. Hona hemen adibide batzuk: gure ikasleak lanean!



Psikomotrizitatea HH 2 urte



HH2 urte Familien Tailerra



HH4 urte Mexiko



HH 2 urte Urdinaren Festa



HH 5 urte Inkak

LH 1.mailako ikasleek musikari buruzko proiektu bat burutu zuten ingeleseko saioetan. Instrumentoen ezaugarriak eta orkestra batean non kokatzen diren ikasi zuten. Musikari famatu batzuen lanetaz gozatu zuten eta, bukatzeko, Rossiniren Gallop pieza famatua interpretatu zuten.

Look at our little musicians!



Ingelesa LH1



LH1 lhauterietako maskarak

MASKOTAK ZERTARAKO?

Zein istoriorekin hasi nahi duzu? Zuk erabaki 1 edo 2

1 Hona hemen zure bihotza hunkituko duen istorio tristo bat...

Ni Badi naiz, bakar single bat. Gabon haletan, ohikoa zen bezala, kaleetan bueltaka nengihien, bakardadean murgirikurik. Inork ez zuen ni bezalako bakar ziztrin batean erreparratzen. Txakur handikotea, begi bakarra, lutzan ohera, leie kidzurra eta herrena. Herriko biztanleak ni ilestean, beste espalora pasatzen ziren hekur edo mesfidantzaz, beste batzuk besoak altxatuz eska egiteko keinu haserrekorrak egiten zizkidaten. Nip ez nuen ezer ulertzen.

Istorioa pozgarriago bihurtu nahi baduzu jo ezazu A
etatera bestek jarrai B

B Herritik bueltak eta bueltak ematen nituen, noraezean, bakardadean, eristuran murgildurik. Egunero kontu berberak. Hori gutxi balitz, egunero ikusi behar izaten nituen herriko beste bakur batzuk bere jabeekin alai eta zoriontsu joasean eta paseoak eginez. Bere jabeen maitasunaz disfrutatzek. Behin, habiko bakur batekin egin nuen topo, eta bere jabeak bizitzek saiatu nintzen.

Gainera, eguna amaitzean, kontu handiz ibili behar nintzen, udal txakurtegiko langileak katu eta txakur biltzatzen pasatzen baitziren. Ni bertan egona nintzen, kaiola batean sartuta hihbeteetan, baina ihes egitea krazo izan nuen.

Gauakiean parkera joateko ohitura nuen. Zuhaitze baten barrunbeak adarrez eta hostoz bete, eta horrela ematen zidan gaua goxo pasatzeko herotasuna. Gaua berarekin eta berekin goitien zitzaizkidan.

Isterioa pozgarriago bihurtu nahi baduzu jo ezazu atalera, bestek jarrai D

DEgun eurtsu eta haizetsu hartan, aterpe batan bila hasi nintzen. Zuko ilun bat aurkitu nuen obratan zegoen eraikin batean. Bertan, kak-katu batzuk ere ikiduta zeuden. Baina katu haiei ez zitzaizken nire presentzia gehiegi gustatu eta bertatik alde egin behar izan nuen zistu bizian.

Beste leku hat bitatu behar nuen gaur pasatzeko, bai
non? Mela eginda nengoen, hotzez akabatur
indargabeturik. Orduak neramazan hara eta hor
iragorpena erabat galdurik.

Bat-batean, kontenedore batean sartzeko aukera ik
nuen. Karteizko kaxa bat hartu eta han egin nuen
Esnaterakoan metalezko kaiola handi batean sari
negoen. Berehala konturatu nintzen, leku h
munduko leku txarra izango zela, txakurtegia.

Istorioa pozgarriago bihurtu nahi baduzu jo ezazu atalera, bestek jarrai F

2 Hona hemen edozein ume alaitu dezakeen istorio polita...

Ni Badi naiz tsakur elegante eta alala. Gabon haitan, ohikoan zeh bezala, nire etsean nengon, gogo-ogo eta hero-hero, nire jahe matxokorraren eztean. Eneko tsakur txikia nintzen, begi handi eta distiratsuekin, bustan luze eta pampoa, le kaze eta larrainkoa. Egunero, hiri aldez ateratzen ginduten kalerak, jastera eta nire beharrik egitera. Gainera, herriko neska-mutirik alaso maite ninduten eta nigara gertatzen ziren kizketara eta hitz goxosak esatera. Hala ere, egun batean nire jabeak gehiagi urrundu eta galku egin zintzen kasa iritsi zen arte.

Istorioak okerrera egitea nahi baduzu jo ezazu B
 atzera, bestela jarrai A

A Herri osoiti bueltak eta bueltak ematen hasi nintzen orduan, bakardadean, trisuran margikidirik. Bat-batean, kakan bizi zen bakur batekin egin nuen topo. Ez zirudien bizimodu porgarriaz disfrutatu zuela kaketakur hark.

Berak lagundu zidan nire etsea bilatzon. Udal txakurtegiko furgoneta pasatzen zenean, ezkutatzeke esaten zidan. Bere urduritasunagatik ez zuen ematen oso leku atsegina izango zenik.

Isterioak okerrera egitea nahi baduzu jo ezazu

C Hurrengo goltean, begiak ireki, eta tsakur handikot haren bizkarrean nengoan, nire etxeiko atariare...

Egia esan, ez dakit zer gertatu zitzaion nire abeak heldurrez uxatu baitzuen.

Egun hura, nire jabearen hanka artean igaro nuen txakur salbatzailearen bila joateko adieraziz. Hasieraz zuten ulertzen, baina, etxeko atea ireki zuten momentuan, zidua bizian atera nintzen etxetik, eta n

Nire usaimenari esker, etxe triste eta zahar bat iritsi ginen. Jabea iritsi zenean, harrituta geratu z

TXAKURTEGIA?

Historioak okerrera egitea nahi baduzu jo ezazu Fata bestela jarrai E

F Eta han zegoen bera, Txakurtzigo ingie kopetluna, ofizialko mahaian gainean hankak jarrita, aipuzgi haserrekorarekin. Etsatu, malici hartu, eta kalak guztiak jotzen hasi zen, bere amorrua bertan geunden guztien aurka aslatuz. Batzuk zaunka erantzun genion, beste batzuk boklaurik kalobren izkina hateran geratzen ziren. Hura zen txakurtzen hartiko hizmodua.

Gabon haxe tristan eta urduritasunean murgikaririk
igaro nuen, eta hiebete batzuk geroago, bakurtetia
"maskotiz" bete zen berriro ere. Urtero, Gabonetan
opari bezala eskatuko "maskotiz" bete. Niri ere
berdina gertatu zitzaidan, Gabonetako opari bat izana
nintzen, baina hiebete batzuk geroago, kalean gertatu
nintzen, bakarrik, gusez...

Eta ban zegoen, txakurtegiko langilea, kopetukun, makil bat eskuan zuela eta aurpegi haserrekorrez kaitokan bekatuturik eta zaunka zeunka, txakur

Ni txakur salbatzailearen katalaren parean jarri
nintzen zuunka, eta jabeak nire jarrerara ikusirik,
txakurra adoptatzea erabaki zuen.

Gabon haiek pozitsunez igaro genituen etxea, eta
habibete batzuk geroago, "betiko maitteko zuten
maskotu" izango zek kontratu zen nire laguna. Inoiz
jasotako oparirik ederrena jaso nuen nik, ADISKIDEA.
Eta ziur nago nire lagunak ere inoiz jaso dezaken
oparirik ederrena jaso zuela, MAITASUNA.

gutu nahi al duzu?

Istorio honen amaiera ezagutu nahi al duzu?

Orain hemen nago, ametsetan, munduko maskota guztiek jabe arduratsu bat duten egunarekin amesten. Badakit ez dela erraza izango, baina esperantza gaku ezkerro, AKABO!

GABONETAKO XXVIII. IDAZLAN LEHIAKETA
Naroa Telleria Garcia
1. SARJA



Udaletxeko idazlan eta krisma saridunak (LH)

GABONETAKO XXVIII. IDAZLAN LEHIAKETA

Aipamen berezia:
Irene Sánchez Echezarreta
Zorionak!



LH2 Natura



Frantsesa DBH1



Gizarte DBH2



Dibertsifikazioa 4.maila

"BEGIRA EZAZU HARANTZAGO" 16/17

Aurtengo leloa landu ondoren, Diber 4. mailakoek beraien gogoeta guztiokin partekatu nahi dute:

BARNERANTZ BEGIRATUZ: Sustrai sakonak, behar dugun energiaren erreserba, elikatzen gaituena!

GURE SUSTRAI-KORAPILOAK: Sentimenduak, balioak, motibazioak... familia, lagunak, amodioak, gelakideak, eskola... Denok prest besteen korapilotan parte hartzeko. A ze emozioa!

HARANTZAGO BEGIRATUZ: Hosto ugari, fruitu berriak, esparru batetik beste batera igarotzea, mugak gaindituz...

GURE HOSTOAK: Hazteko behar ditugun konpromezuak, desioak, balioak... Arrakasta, erantzunkizuna, gogobetetasuna, segurtasuna, konfidantza, ardura, estimua, onarpena...

Bide batez, zuhaitz honetan parte hartu nahi izanez gero, gonbidatuta zaudete!!! Zuen korapilo eta hostoak ekarri!!!

AIZKORAK
KAMISETAK
ZAPATILAK

PELOTAK
ZAPATILAK
PRAKAK
KAMISETA OFIZIALAK

ZAPATILAK
ARROPA
MOTXILA

BESTE
KIROLETAKO
PRODUKTU OFIZIALAK

PISUZKO
HARRIAK
PETOAK

TXIRRINDUAK
ARROPA
BETAURREKOAK
ZAPATILAK

AMINI SPORT

Umeei Tspila Kantina

itxarotea goxoago izan dadila

Orduak:
Astelehena: 10:00tik-13:30
Asteartea: 10:00tik-13:30
Asteazkena: 10:00tik-13:30
Osteguna: 10:00tik-13:30
Ostirala: 10:00tik-13:30

NEJ

Hurrengo zerbitzuak ematen ditugu:
-Txakuraren zaintza eta opre
-Txakuraren erretze
-Txakuraren erretze

ORDUTEGIA:
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
Gutxienez: 9:30 - 13:30
Arratsalde: 16:30 - 21:30

LARUNBATA
Gutxienez: 10:30 - 13:00
Arratsalde: 17:00 - 20:30

Larrialdi-telefonoa: 943 83 21 23

Café 30 KAFE
Cafeteria / Kafetegia

21. mendeko kafetegia
PIEDAD KALEA 5-ean
GAUDE

PERTSONA BAKOITZARENtzat KAFE MOTA BAT...

Kafe leun eta atsegina gustatzen bazaizu, baina gozo pixka batekin...
ARABIGO

Zatoz urrutik dauden baina gertu dauden kafe bikaina dastatzera!

Kafe mingatza eta latz toke batekin gustatzen bazaizu...
KAFE TROPIKALA

Zatoz kafe bikain hau dastatzera! Kafea bakoitza eronango zaitu eta!

ZATOZ GURE KAFE ZAPOREAZ GOZATZERA!

JATXIKI JATETXEA

Inguruko biztanleriaren beharrak kontuan hartuta; gurasoentzako eta umeentzako aisialdi bat sortu dugu:

- Gurasoak eta seme-alabak lasai bazkaltzen dute
- Ondoren umeak dibertitzen dira txiki-parkean eta gurasoak lasai egoten dira.

Zer egiten dugu gure enpresa iraunkorra izateko?

Ingurumena kontuan hartzen dugulako hainbat gauza egiten ditugu honi laguntzeko:

- Sortzen ditugun hondakin guztiak berziklatzen ditugu
- Bertako produktuak erabiltzen ditugu eta ekologikoki landuta daude.
- Eguzki-energia erabiltzen dugu gure instalazio elektrikoak asetzeko.

HEMENGU PRODUKTUAK

- Eusko label goi-mailako elikagaiak
- Euskal baserri fruitak eta barazkiak
- Beste hainbat produktu: Idiazabal gazta, Getariako txakolina eta errioxako


Jatxiki Jatetxea
611-616-069
www.jatxiki.eus
Lago de Leizaola 13
Zuharraga - Gipuzkoa

Gizarte DBH3

DBH 4.mailako Ekintzailtza hautazko ikasgaiaren ikasleek proiektu bat burutu zuten lehenengo ebaluaketan: Urola Garaiko Mankomunitatearen UGGASA erakundearentzat bideo bat sortu zuten, non ekintzailtzaren ezaugarriak txertatu zituzten.

HEMEN

klikatu bideoa ikusteko



Ekintzailtza DBH4



Nagore Díaz DBH3



Hezkuntza Fisikoa DBH4


INFORME DE HÁBITOS DE LECTURA

Informe sobre los hábitos de lectura de los alumnos de 4º de la ESO de La Salle-Legazpi.

MARTIN ARAMBURU RODRIGUEZ
06/02/2017

INFORME DE HÁBITOS DE LECTURA

Gaztelania DBH4



Esther Santamaría · DBH3. maila

"Harry Potter eta ondare madarikatua" irakurtzea gomendatuko nizuke. Liburu honek orain dela urte batzuk bukatu zen liburu sagarekin jarraitzen du. Protagonista pertsonaia berbera da, baina oraingo honetan heldua izatean berak eta bere semeak ez dute elkar ondo ulertzen. Bere semeak bizitzen dituen abenturak kontatzen ditu. Liburu hau gustatu zait, J. K. Rowling-ek sortu duen "mundu" horretan murgiltzen zaituelako. Bestalde, liburu motza da, erraz irakurri daitekeena.

Liburuak





DBH2 Bideo klipak

Ikasleen txokoa









El camino de LA SALLE a UGLE:


Tras estudiar en La Salle, estos alumnos/as estancursando sus estudios en UGLE.
¡Lee su experiencia!



ARIANE ARRIBAS

Batxilergo Zientifikoa - 16 urte.

Batxilergo zientifikoa ikasi nahi nuela oso argi neukan eta UGLE aukeratzera bultzatu ninduen ideia printzipala gertutasuna izan zen. Herriko eta herritik kanpoko hainbat ikastetxe ikusi ondoren UGLE aukeratzea erabaki nuen. Batik bat herrian bertan egoteak abantaila oso handiak dituelako. Nire familiako pertsona asko UGLEn ikasitakoak dira eta beraien esperientzia oso ona izan zenez, bertan ikastera animatu ninduten. Ikastetxean hainbat hilabete igaro ondoren esan dezaket oso gustura nagoela eta ez naizela nire aukeraz damutzen.



ALBERTO BLÁZQUEZ

Giza eta Gizarte Zientzien
Batxilergoa – 16 urte.

DBH bukatu ostean, zalantza asko nituen, esate baterako: zer egin, non egin... etab. Beste leku batera joateko ideari zegokionez, ez ninduen beldurtzen jende berria edota leku berriak ezagutzeak baina, egia esanda, ez zait gehiegi gustatzen egunero trena hartu eta lekualdatuz ibili behar izatea.

Azkenean, ondo pentsatu ondoren eta besteen iritziez baliatuz, UGLEk eskaintzen zidan gertutasuna eta konfidantza aukeratu nuen.



NEREA MAROTO

Batxilergo Teknologikoa – 16 urte

UGLE aukeratu nuen aurretik entzunda neukalako esperientzia zutela batxilergo teknologikoan. Herrian bertan ikasi nahi nuen eta nire lagun batzuen eta familiako pertsona batzuen iritzia entzun nuen. Baina lehenik eskola ikusi nahi nuen. Ikusi eta, orduan, jakin nuen non egin nire batxilergoa.



Beloki Hiribidea z/g.
Post. Kutxatila 57
20700 ZUMARRAGA
(Gipuzkoa)

T. 943 72 54 77

F. 943 72 60 03

ugle@ugleskola.org

www.ugleskola.org



→ urola garaiko lanbide eskola

*Beloki hiribidea z/g
ZUMARRAGA*

943 725 477

www.ugleskola.org

HEZKUNTZA ARAUTUAN:

- BATXILERGOA
- ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- GOI MAILAKO ZIKLOAK
- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAN:

- HOBETUZeko IKASTAROAK
- LANBIDEko IKASATROAK



ZERKI

KIROL ETA AISIALDI ZERBITZUAK

**Eskola Kirola
Puzgarriak
Apar festak**

...

**Zure ikastetxearen
neurrira!**